

ADFIN 1eko ikasleak irabazle EJE PROIEKTUAN

2009/05/08

Administrazioa eta Finantzak, Goi Mailako Heziketa Zikloko, 1go mailako ikasle talde batek, Eusko Jaurlaritzaren saria jaso du TKNIKA- (Lanbide Heziketarako eta Ikasketa Iraunkorrerako Zentrua) antolatutako lehiaketa batean EJE PROIEKTUAREN barnean.

Hezkuntza proiektu honek, Lanbide Heziketako ikasleen kompetentzia ekintzaileak bultzatzen ditu enpresa txikien sormenaren bitartez. Proiektuaren helburua da ikasleek beraien ekintzak benetako kontestu praktiko batean garatzea, beste erkidego autonomoetako hezkuntza ikastetxeetan sortuak diren antzeko enpresa txikiekin erlazio komertzialak garatuz, hauekin produktuen katalogoak trukatzuz, eskaerak negoziatuz eta modu erreal batean erosi eta salduz, aurrerago beraien inguruetan komertzializatzeko. Honen bitartez, ikasleek inguruko erakunde eta enpresekin harremanetan jartzeko aukera dute.

Aurkeztutako proiektuan ikasleek Kooperatiba bat sortu dute, ZE XAUN izenekoa. Taldekideak, Saioa, Agurne, Eneida, Ana, Ibet, Cristina, lanire, Alazne eta Lourdes izan dira. Oñati, Antzuola, Arrasate, Eskoriatza eta Zumarragoak.

Proiektuaren lidergoa, Eunatze Elio irakasleak eraman du Beñat Herce irakaslearen lankidetzarekin.

Sarien banaketa Kurasaal-en burutu zen asteazkenean, maiatzak 6an, arratsaldeko zazpiretan.

ZE XAUNi buruz informazio gehiago nahi baduzu, zexaun.blogspot.com helbidean sartu eta beraien harremanetan jarri nahi baduzu, zexaun@gmail.com helbidearen bidez egin dezakezu.

